TEATRO ANTZOKIA
PRINCIPAL!
VITORIA-GASTEIZ

47

# Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia

# Festival Internacional de Teatro de Vitoria-Gasteiz

urria - azaroa

octubre - noviembre

2022



*Peter Brook*
*(1925-2022)*
*in memoriam*

© Simon Annand

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Argitaratzailea | Edita:
Vitoria-Gasteizko Udala | Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Udal Antzoki Sarea | Red Municipal de Teatros

Diseinua, maketazioa eta azala | Diseño, maquetación y portada:
Udalaren Komunikazio Zerbitzua | Servicio Municipal de Comunicación

Itzulpena | Traducción: Saretik Hizkuntza Zerbitzuak

Inprimatze lana | Imprime:

LG | DL: LG G 00532-2021

# 47
# Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia

# Festival Internacional de Teatro de Vitoria-Gasteiz

# AURKIBIDEA / ÍNDICE


## TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 7 | urriak 1 octubre | Bells and spells<br>Victoria Thierrée Chaplin-Aurelia Thierrée | larunbata / sábado |
| 8 | urriak 8 octubre | Ladies Football Club<br>Barco Pirata | larunbata / sábado |
| 9 | urriak 11 octubre | La infamia<br>José Martret | asteartea / martes |
| 10 | urriak 19 octubre<br>urriak 20 octubre | Lurtarrok / Terrícolas<br>El mono habitado | asteazkena / miércoles<br>osteguna / jueves |
| 11 | urriak 21 octubre | Retorno al hogar<br>Producciones teatrales contemporáneas | ostirala / viernes |
| 12 | urriak 27 octubre<br>urriak 28 octubre | Tempest Project<br>Peter Brook y Marie Hélène Estienne | osteguna / jueves<br>ostirala / viernes |
| 13 | azaroak 1 noviembre | N.E.V.E.R.M.O.R.E.<br>Chévere y Centro Dramático Nacional | asteartea / martes |
| 14 | azaroak 4 noviembre | Perra<br>Ortzai | ostirala / viernes |
| 15 | azaroak 10 noviembre | The mountain<br>Agrupación Señor Serrano | osteguna / jueves |
| 16 | azaroak 17 noviembre | Los farsantes<br>Buxman Producciones y Centro Dramático Nacional | osteguna / jueves |
| 17 | azaroak 18 noviembre | Feste<br>Familie Flöz | ostirala / viernes |
| 18 | azaroak 26 noviembre | Finlandia<br>Kamikaze Producciones y Pascal Rambert | larunbata / sábado |

## DANTZA / DANZA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 19 | azaroak 12 noviembre | The tree<br>Carolyn Carlson | larunbata / sábado |
| 20 | azaroak 15 noviembre | La casa vacía<br>Proyecto Larrua | asteartea / martes |
| 21 | azaroak 25 noviembre | Don Juan<br>Aterballetto | ostirala / viernes |

## EUSKERA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 22 | azaroak 19 noviembre | Sex berdinak<br>Tanttaka Teatroa | larunbata / sábado |

## GIZARTE ETXEETAKO ANTZERKIA / TEATRO EN LOS CENTROS CÍVICOS

| | | | |
|---|---|---|---|
| 23 | urriak 5 octubre (euskera)<br>urriak 6 octubre (castellano)<br>Teatro J. Ibáñez de Matauco Antz. | Itsas behera / Marea baja<br>Pez Limbo | asteazkena / miércoles<br>osteguna / jueves |
| 24 | urriak 14 octubre<br>Teatro Félix Petite Antzokia | Ama<br>Marie De Jongh | ostirala / viernes |
| 25 | azaroak 5 noviembre<br>Teatro Félix Petite Antzokia | Faces<br>Khea Ziater y Teatro Arriaga | Larunbata / sábado |
| 26 | azaroak 10 noviembre<br>azaorak 11 noviembre<br>azaroak 12 noviembre<br>azaroak 13 noviembre<br>Teatro J. Ibáñez de Matauco Antz. | Attorno a un tavolo<br>Teatro delle Ariette | osteguna / jueves<br>ostirala / viernes<br>larunbata / sábado<br>igandea / domingo |

## FAMILIARENTZAKO IKUSKIZUNAK / ESPECTÁCULOS EN FAMILIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 27 | urriak 16 octubre | Artinauta<br>Marcel Gros | igandea / domingo |
| 28 | urriak 23 octubre | Pss Pss<br>Baccalá | igandea / domingo |
| 29 | urriak 30 octubre | Loop<br>Aracaladanza | igandea / domingo |
| 30 | azaroak 6 noviembre | Gure kanoa<br>Zurrunka teatroa | igandea / domingo |

## HAURTXOAK PROIEKTUA / PROYECTO BEBES (FESTIVAL HAZIARABA IN THE MAPPING)
## Teatro Federico García Lorca Antzokia

| | | | |
|---|---|---|---|
| 32 | azaroak 26 de noviembre | Malebable<br>Helena Lizari | larunbata / sábado |
| 32 | azaroak 27 noviembre | Cache-Cache<br>Théâtre de la Guimbarde | igandea / domingo |
| 33 | abenduak 3 de diciembre | Ludi<br>Teatro Paraíso Antzerkia- Createctura | larunbata / sábado |
| 33 | abenduak 4 de diciembre | Espera un minuto<br>De Stilte | igandea / domingo |

## ANTZERKIA ZABALTZEN / TEATRO ABIERTO

| | | | |
|---|---|---|---|
| 34 | urriak 13,14, 15, 16 octubre<br>Haurtzaro Udal Haur Eskola<br>Escuela Infantil Municipal Haurtzaro | Off Lokal 1<br>La vuelta a casa (Arrapala),<br>Oracle motel (Parasite Kolektiboa)<br>Justicia (Carmen San Esteban) | osteguna / jueves<br>ostirala / viernes<br>larunbata / sábado<br>igandea / domingo |
| 35 | azaroak 17,18, 19, 20 noviembre<br>Plaza Etxauri | Off Lokal 2<br>Daisy Crazy (Pez Limbo)<br>Tránsitos (Amaia Garrosa)<br>Raska nazka (Kolectivo Mostrenko) | |

## ANTZERKIARI BURUZKO SOLASALDIAK / TERTULIAS TEATRALES

| | | |
|---|---|---|
| urriak 11 octubre | La infamia | asteartea / martes |
| azaroak 10 noviembre | The mountain | osteguna / jueves |
| azaroak 15 noviembre | La casa vacía | asteartea / martes |

## INFORMAZIO OROKORRA / INFORMACIÓN GENERAL

Sarrera salmenta / Venta de entradas

Prezioak / Precios

Abonamendu irekia / Abono abierto



Tempest © Marie Clauzade





NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIARI HASIERA EMATEKO IKUSKIZUNA
ESPECTÁCULO DE INAUGURACIÓN DEL FESTIVAL INTERNACIONAL DE TEATRO

# Bells and spells

**(Estreno en Euskadi / Estreinaldia Euskadin)**

## Victoria Thierrée Chaplin / Aurélia Thierrée (Frantzia / Francia)

**urriak 1 octubre, 19:30**

Aurelia Thierrée, Charles Chaplinek hasi zuen zirkuko, zinemako eta antzerkiko artisten sagarekin aurrera jarraitu duenetako kide bat, berriro ere Gasteizen izango da *Bells & Spells* aurkezten. Ikusizko poesia-ikuskizun horretan, objektuak bizidun bihurtzen dira eta agertokiaren gainetik hegan egiten dute.

*L'Oratorio d'Auréliaren* eta *Murmures des mursen* ostean, Victoriak berriro ere irudimenaren ateak irekiko ditu lasaitasunez eta poesiaz beteta.

Pertxa bat oinez hasiko da. Aulkiak eta mahai bat labaindu egingo dira, elkar saihestuko dute; eta, bien bitartean, horma bat ireki eta bi dantzari aterako dira bertatik. Bat-batean, bizitza autonomo batek soineko bat mugituko du…

Victoria Thierrée-Chaplinen sormen-lanetan gertatu ohi den moduan, bitxia dena zoragarria denarekin batzen da. Ameskeria mota horiek irribarrea eta ametsak eragiten dituzte. *Bells and Spells* lanean, logikak, arrazoiak edo seriotasunak ez dute tokirik. Aurélia Thierréek herrialde ameslari batera eramango gaitu. Umore surrealista eta esanahi magikoa uztartzen ditu horrek. Ikuskizun musikala, dantzaz eta sekretuz betea, harrigarria eta dibertigarria.

Aurelia Thierrée, una de las continuadoras de una saga de artistas de cine, teatro y circo que comienza con Charles Chaplin, vuelve a Vitoria-Gasteiz para presentar *Bells & Spells*, un espectáculo de poesía visual donde los objetos toman vida y sobrevuelan el escenario.

Después de *L'Oratorio d'Aurélia* y *Murmures des murs*, Victoria abre una vez más las puertas de su imaginación teñida de tranquilidad y poesía.

Una percha comienza a caminar. Los asientos y una mesa se deslizan, se esquivan, mientras una pared se abre para dejar aparecer a una pareja de bailarines. Un vestido es movido de repente por una vida autónoma…

Como siempre en las creaciones de Victoria Thierrée-Chaplin, lo extraño se une a lo maravilloso. Todo tipo de espejismos hacen sonreír y soñar. En *Bells and Spells*, ni la lógica, ni la razón, ni la seriedad tienen nada que decir al respecto. Aurélia Thierrée nos guía hacia un país visionario que combina humor surrealista y significado mágico. Un espectáculo musical, bailado, lleno de secreto, sorprendente y divertido.

Egilea eta zuzendaritza / Concepto y dirección: **Victoria Thierrée Chaplin, Aurélia Thierrée, Jaime Martínez**

Eszenografia eta jantziak / Escenografía y vestuario: **Victoria Thierrée Chaplin**

Koreografia / Coreografía: **Armando Santin, Victoria Thierrée Chaplin**

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

Texturik gabeko ikuskizuna / Espectáculo sin texto

70 m

18/12/6 euro



# Ladies Football Club

## Barco Pirata / Sergio Peris-Mencheta

**urriak 8 octubre, 19:30**

1917ko apirilaren 6an, ostiralean, Estatu Batuak gerran sartu zen. Baina, batez ere, 1917ko apirilaren 6an, ostiralean, bazkaltzeko etenaldian, Doyle & Walker Munizioak enpresako hamaika emakume langile, esku horiko hamaika munitionette, baloi baten atzetik hasi ziren korri egiten.

Emakumeen futbolaren fenomenoa Ingalaterran sortu zen, Lehen Mundu Gerrako urteetan. Ehunen edo munizioen fabriketako emakumezko langileek osatutako taldeak legendario bihurtu ziren eta, denbora gutxian, ikusleen arreta eta zaletasun handia lortu zuten. Aldiz, futbol arloko gizonezkoen erakundeen artean areriotasuna sortu zuten. Gerra amaitu zenean, hainbat urtetan arrakasta sinestezinak lortu ostean, legeak taldeak desegitera behartu zituen.

Hain zuzen ere, hauxe da haietako baten historia.

Hori bera egin zuen Lehman Brothersekin, baina errepikatu egin du. Sergio Peris-Menchetak maisutasunez zuzentzen du bere Itsasontzi Pirata. Antzeztu, abestu, dantza egin, mugitu eta, batez ere, zirrara eragiten duten hamaika emakume dira.

El día 6 de abril del año 1917, un viernes, Estados Unidos entraba en guerra. Pero, sobre todo, el viernes día 6 de abril del año 1917, durante la pausa del almuerzo, once trabajadoras de la Doyle & Walker Municiones, once munitionettes de manos amarillas, empezaban a correr detrás de un balón.

El fenómeno del fútbol femenino nace en Inglaterra, durante los años de la Primera Guerra Mundial. Equipos que se convirtieron en legendarios, formados por las trabajadoras de las fábricas textiles o de municiones, y que en poco tiempo lograron un enorme afecto y atención del público, provocando la hostilidad por parte de las instituciones masculinas del fútbol. Terminada la guerra muchos de estos equipos fueron obligados a disolverse por ley tras unos años de éxitos increíbles.

Esta es la historia de uno de ellos.

Ya lo hizo con Lehman Brothers, pero lo ha vuelto a repetir. Sergio Peris-Mencheta capitanea su Barco Pirata con absoluta maestría. Once mujeres que actúan, cantan, bailan, se mueven, y ante todo, emocionan.

Testua / Texto: **Stefano Massini**

Zuzendaritza eta egokitzapena / Dirección y adaptación: **Sergio Peris-Mencheta**

Antzezleak / Intérpretes: **Noemí Arribas, Xenia Reguant, Ana Rayo, María Pascual, Diana Palazón, Nur Levi, Alicia González, Carla Hidalgo, Irene Maquieira, Andrea Guasch, Belén González.**

| |
|---|
| Teatro Principal Antzokia |
| Antzerki abonamendua / Abono teatro |
| 150 m (atsedenarekin / con descanso) |
| 24/18/12 euro |







# La infamia

## Lydia Cacho / José Martret

**urriak 11 octubre, 19:30**

Lydia Cacho giza eskubideen urraketaren aurka bizitza osoan borroka egin duen kazetari eta aktibista mexikarra da. Emanaldi hau Lydiak idatzitako *Memorias de una infamia* liburu autobiografikoa oinarritzat hartuta sortu zuten. Kazetariak jasandako bahiketa eta ustelkeriaren eta indarkeriaren konplizea den gobernuaren modus operandia deskribatzen dira bertan.

Agertokian, antzerkiko eta zinematografiako narratiba elkartuko ditugu: kamera batek uneoro egingo dio protagonistari jarraipena eta ikusleari aktorearen lehen planoa eskainiko dio, ikusleak ekintzak proposatzen duen esparru psikologikoan eta emozionalean azterketa sakonagoa egiteko aukera izan dezan. Ikuskizuna gaur egun gure artean erbesteratuta bizi den aparteko emakume bat ezagutzeko gonbidapena da.

Erresuma Batuko Harold Pinter Prize for International Writer Of Courage saria irabazi zuen Lydia Cachoren *Memorias de una infamia* lanean oinarrituta.

**Solasaldia antzezpena bukatutakoan.**
**Gonbidapenak irailaren 15etik aurrera**

Lydia Cacho es una periodista y activista mexicana que ha luchado durante toda su vida contra la violación de los derechos humanos. Esta función se crea a partir del libro autobiográfico de Lydia *Memorias de una infamia*, donde se retrata el secuestro que sufrió la periodista y el modus operandi de un gobierno cómplice de la corrupción y la violencia.

En el escenario se combina la narrativa teatral y la cinematográfica; una cámara seguirá en todo momento a la protagonista ofreciendo al espectador un primer plano de la actriz, para que el espectador de forma más inmersiva pueda bucear en el ámbito psicológico y emocional que propone la acción. Este espectáculo es una invitación para conocer a una mujer excepcional que, a día de hoy, vive exiliada entre nosotros.

Basado en *Memorias de una infamia*, de Lydia Cacho, ganadora del Harold Pinter Prize for International Writer Of Courage de Reino Unido.

**Tertulia tras la representación**
**Invitaciones a partir del 15 de setiembre**

Testua / Texto: **Lydia Cacho**

Zuzendaritza / Dirección: **José Martret**

Antzezleak / Intérpretes: **Marta Nieto / Marina Salas**

Koprodukzioa / Coproducción: **Teatro Español-Producciones Come y Calla**

| |
|---|
| Teatro Principal Antzokia |
| Antzerki abonamendua / Abono teatro |
| 90 m |
| 18/12/6 euro |



# Terrícolas / Lurtarrok

## (Erabateko estreinaldia / Estreno absoluto)

## El mono habitado

**urriak 19 octubre, 19:30 (euskaraz)**
**urriak 20 octubre, 19:30 (castellano)**

*Terrícolas / Lurtarrok* goi mailako inteligentzia ezagutu ostean beren buruak berriro kokatu nahian ari diren izaki batzuetan oinarritutako komedia absurdoa eta atsegina da. Inguruan dugun eta bertako kide garen munduari egindako begirada ironikoa da.

Beste behin, beren oreka ezbaian jarriko duen ezinezko egoera bati aurre egin behar dioten pertsonaia errealak izango ditugu. Oraingoan, beste planeta bateko espazio-ontzi bat izango dute aurrean. Ez da zientzia-fikziozko istorioa ordea. Gizakien arteko topaketa da; hau da, beren bizitza erakutsiko diguten hiru pertsonaien arteko hurbilketa.

Ezohiko egoeren aurrean haien gizatasuna eta kontraesanak, zaletasunak eta ametsak, eta batez ere unibertso poetikoaren eta errealitatearen artean mugitu ahal izateko duten gaitasun osoa agerian uzten dituzten pertsonaiak oinarri dituen edukia jartzen du agertokian gure sortzeko moduak.

Gogoetarako eta komunikaziorako tresna gisa umorean sinesten dugu eta horren aldeko apustua egiten dugu; dibertitzeko eta zalantzak ezagutarazteko erabilgarria dela uste dugu.

*El mono habitado*

*Terrícolas / Lurtarrok* es una comedia absurda y tierna basada en unos seres que tratan de reubicarse ante el descubrimiento de una inteligencia superior. Es una mirada irónica al mundo que nos rodea y al que pertenecemos.

Una vez más presentamos personajes reales enfrentándose a una situación imposible que pone a prueba su equilibrio. En esta ocasión un encuentro con una nave de otro planeta. Pero no se trata de una historia de ciencia ficción, todo lo contrario, es un "encuentro humano", el acercamiento de tres personajes que nos mostrarán sus vidas.

Nuestra manera de crear pone en escena comedia con contenido, con personajes que, en situaciones insólitas, revelan su humanidad y sus contradicciones, sus pasiones y sus sueños, y sobre todo su capacidad para moverse entre la realidad y un universo poético. Creemos y apostamos por el humor como herramienta de reflexión y comunicación, útil para divertir y para transmitir inquietudes.

*El mono habitado*

Testua / Texto: **Raúl Camino**

Zuzendaritza / Dirección: **Julio Cortázar**

Antzezleak / Intérpretes: **Begoña Martín, Raúl Camino, Aitor Pérez**

Teatro Principal Antzokia

Euskarazko antzerki abonamendua / Abono teatro en euskera (urriak 19 octubre)

Abonamendutik kanpo / Fuera de abono ( urriak 20 octubre)

Antzerki abonamendua erostean, % 30 deskontua ikuskizun honetan (urriak 20)
Al comprar el abono de teatro, 30% de descuento en este espectáculo (20 octubre)

85 m

15/10/6 euro







# Retorno al hogar

## Harold Pinter / Daniel Veronese

**urriak 21 octubre, 19:30**

*Retorno al hogar* lanean, Pinterrek (XX. mendeko bigarren erdialdeko Ingalaterrako arte dramatikoko egile nagusiak, 2005ean Literaturako Nobel Saria eskuratu zuenak) gordintasun handiz azaldu zituen dagoeneko helduak diren bi semerekin eta anaia batekin bizi den aita alargun baten arteko kontraesanak eta tentsioak. Nola sortu familia-topaketa batean ahalik eta tentsio handiena? Pinterrek, sortzaile gisa, badakiela dirudi eta halaxe eskaintzen digu.

Daniel Veronese zuzendariaren ikuskizunak Amerikako, Europako eta Asiako ehun hiri baino gehiagotan aurkeztu dituzte. Haren testuak frantsesera, alemanera, italierara, ingelesera eta portugesera itzulita daude. Aurreko edizioetan, bere lan bikainez gozatzeko aukera izan dugu: *Glengarry Glen Ross, Un tranvía llamado deseo* edo *Los hijos se han dormido.*

Veronese, testu zoragarri honekin itzuliko da oraingoan antzezle bikainekin batera: Miguel Rellán, David Castillo, Fran Perea, Alfonso Lara , Juan Carlos Vellido eta Silma López.

En *Retorno al hogar*, Pinter, considerado el máximo exponente del arte dramático inglés de la segunda mitad del siglo XX y Premio Nobel de Literatura en 2005, retrata con suma crudeza las mil y una contradicciones y tensiones entre un padre viudo que vive con dos de sus hijos, ya adultos, y un hermano. ¿Cómo generar la máxima tensión en una reunión familiar? Pinter, como creador, parece saberlo y puede ofrecérnoslo.

Los espectáculos de Daniel Veronese, su director, se han presentado, en más de un centenar de ciudades de América, Europa y Asia. Sus textos han sido traducidos al francés, alemán, italiano, inglés y portugués. Hemos podido disfrutar en anteriores ediciones de grandes obras suyas como *Glengarry Glen Ross, Un tranvía llamado deseo,* o *Los hijos se han dormido.*

Veronese vuelve ahora con este gran texto arropado por grandísimos intérpretes como Miguel Rellán, David Castillo, Fran Perea, Alfonso Lara, Juan Carlos Vellido y Silma López.

Egokitzapena eta zuzendaritza / Adaptación y Dirección: **Daniel Veronese**

Antzezleak / Intérpretes: **Miguel Rellán, David Castillo, Fran Perea, Alfonso Lara, Juan Carlos Vellido, Silma López**

Ekoitzpena / Producción: **Producciones Teatrales Contemporáneas**

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

18/12/6 euro



© Marie Clauzade

# Tempest Project

## Peter Brook / Marie Hélène Estienne
## Théâtre Bouffes du Nord (Frantzia / Francia)

### urriak 27-28 octubre, 19:30

Lanaren sorburua William Shakespearearen *Ekaitza* testuari buruzko ikerketa da.

Egokitzapena eta eszena-zuzendaritza:
Peter Brook eta Marie-Hélène Estienne

Eszena eta bigarren mailako pertsonaia batzuk kenduta, eta *Ekaitza* lanaren esentzia bakarrik utzita, Peter Brooken eta Marie-Hélène Estienneren bertsioa askatasunaren desioan oinarritzen da protagonistek etsipenez oroitzen duten oinarrizko kontzeptu gisa. Eta Shakespearerekin beti gertatzen den moduan, hitza gure belarrietara iradokizun gisa iristen da, eta oihartzun moduan durundi egiten geratzen da.

Ikuskizuna Brooken Pariseko antzokian, Bouffes du Nord-en, 2020ko otsailean eskainitako antzerki-ikerketako tailer batean sortu zen.

Brookek bere mundura eramango gaitu artifiziorik gabeko eta beharrezkoak ez diren elementu guztiak kenduta dituen agertokian. Parekorik ez duen antzerkirako espazioa, bere mundua, sortzeko, nahikoa ditu egurrezko enbor batzuk, bastoi bat, makila batzuk, liburu bat, alfonbra bat eta kapela bat. Bere mundu hori sentsibilitate poetikoarekin, fantasiarekin eta austeritate miresgarriarekin osatuta dago.

Una obra derivada de la investigación sobre el texto *La tempestad* de William Shakespeare.

Adaptación y dirección de escena:
Peter Brook y Marie-Hélène Estienne.

Despojándose de algunas escenas y personajes secundarios y dejando solo la esencia de *La Tempestad*, la versión de Peter Brook y Marie-Hélène Estienne se centra en el anhelo de libertad como concepto clave añorado por sus protagonistas. Y como siempre con Shakespeare, la palabra viene a nuestros oídos como una sugerencia y queda resonando como un eco.

El espectáculo surge de un taller de investigación teatral impartido en febrero de 2020 en el teatro de Brook en París, Bouffes du Nord.

Brook nos lleva a su mundo en un escenario desnudo de artificios, despojado de cualquier elemento superfluo. No necesita más que unos troncos de madera, un cayado, algunas varas, un libro, una alfombra y un sombrero para crear un espacio teatral único, su mundo, tejido artesanalmente con sensibilidad poética, fantasía y admirable austeridad

Testua / Texto: **William Shakespeare**

Antzezleak / Intérpretes: **Sylvain Levitte, Paula Luna, Marilù Marini, Fabio Maniglio, Luca Maniglio, Ery Nazaramba**

Argiteria/ luminación: **Philippe Vialatte**

Abestiak / Canciones: **Harué Momoyama**

Produkzioa / Producción: **Centre International de Créations Théâtrales / Théâtre des Bouffes du Nord**

Koprodukzioa / Coproducción: **Théâtre Gérard Philipe, centre dramatique national de Saint-Denis; Scène nationale Carré-Colonnes Bordeaux Métropole; Le Théâtre de Saint-Quentin-en-Yvelines – Scène Nationale; Le Carreau - Scène nationale de Forbach et de l'Est mosellan; Teatro Stabile del Veneto; Cercle des partenaires des Bouffes du Nord.**

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro
(urriak 27 octubre)

75 m

18/12 euro

Leku mugatua / Aforo limitado

Frantsesez, gasztelaniazko azpitituluekin
En francés con subtítulos en castellano








# N.E.V.E.R.M.O.R.E.

## Chévere y Centro Dramático Nacional

### azaroak 1 noviembre, 19:30

2002ko azaroa. Prestige petrolio-ontzi zaharrak, fuel-olio astunez beteta zegoela, SOS abisua igorri zuen enbata gogor baten erdian, Fisterra lurmuturretik 28 miliatara zegoela. Sei egunez, helmuga jakinik gabe atoian eraman zuten, bere karga itsasora botaz. Zazpigarren egunean, 3.000 metro baino gehiagoko sakoneran hondoratu zen. Sekulako hondamendia!

2020ko martxoan hasi ginen lan hau prestatzen. Eta, bat-batean, birus batek guztia alda daitekeela erakutsi zigun. Hau da, mundua geldi daitekeela. Eta oso bizkor ahaztu genuela jabetu ginen.

Urtebete geroago, guztia lehen bezalakoa izan dadin egiten ari garen ahalegin handia egiaztatu genuen. Eta beste behin amore ematea zein erraza den. Ondorioz, gauzak beste era batekoak izan daitezkeela horren erraz ez ahazteko istorio bat kontatzea erabaki genuen. *N.E.V.E.R.M.O.R.E.* izena jarri diogu.

*Chévere*

Noviembre 2002. El Prestige, otro viejo petrolero cargado con fuel pesado, lanza un S.O.S. en medio de un fuerte temporal, a 28 millas de Cabo Fisterra. Durante seis días es remolcado sin un destino cierto, vertiendo su carga al mar, y al séptimo día se hunde a más de 3.000 metros de profundidad. ¡Gran catástrofe!

Empezamos a idear este trabajo en marzo de 2020, cuando la llegada de un virus nos demostró que todo puede cambiar, que el mundo se puede parar. Y nos dimos cuenta de lo rápido que lo habíamos olvidado.

Un año después comprobamos el enorme esfuerzo que se está haciendo para que todo vuelva a ser como antes. Y lo fácil que es dejarse convencer otra vez. Así que decidimos contar una historia para no olvidar tan fácilmente que las cosas pueden ser de otra manera. La hemos llamado *N.E.V.E.R.M.O.R.E.*

*Chévere*

Sorkuntza / Creación: **Chévere**

Antzerkigintza eta zuzendaritza / Dramaturgia y dirección: **Xron**

Antzezleak / Intérpretes: **Manuel Cortés, Borja Fernández, Mónica García, Miguel de Lira, Patricia de Lorenzo, Arantza Villar**

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

110 m

18/12/6 euro



# Perra (Erabateko estreinaldia / Estreno absoluto )

## Ortzai / Iker Ortíz de Zárate

### azaroak 4 noviembre, 19:30

*Perra* oihartzun bat da, Hekuba eta Troiarrak lanen oihartzuna, zeinen bitartez, gure denboratik hain urruti ez dagoen garai batean, Euripides izeneko antzerkigile batek oihu egin baituen gerraren aurka. Gaur egun ere premia eta gordintasun berberarekin entzun behar litzateke indarkeria eta sufrimendu ororen aurka oihu hori bera, nahiz ahanzturara baztertzen duen gure komenientziak, gure axolagabekeriak, egungo bidegabekerien aurrean planto egiteko adore ezak, edo gure memoria berreskuratu eta iraganekoei so egiteko konpromiso etiko ezak.

Teatralitate oro bazter uzteko asmoz, *Perra*ren antzezleek (buru dituztela Teresa Ibáñez Hekubaren paperean, eta Andoni Lauzurika, Agamenon garailearenean), mendekutik justiziara aldatzen du arreta-gunea. Emakume bat ariko da justizia horren eske, emakume bat adinekoa, esklaboa eta atzerritarra, Legearen ordezkarien begietan.

2005. urtean Gasteizen sortutako ORTZAI konpainiaren bokazioa hizkuntza komuna eta bere jarduerarekiko eta bertan inprimatutako balio artistiko eta humanoekiko konpromisoa bilatzea da.

Orain bere azken lana aurkeztuko digute: *Perra*.

Troia edozein une eta leku da.

*Perra* es eco de una Hécuba y Las Troyanas con que en un tiempo no tan lejano al nuestro un dramaturgo llamado Eurípides gritaba contra la guerra con la misma urgencia y crudeza con que ese grito se debe hacer oír hoy en el mundo ante toda violencia, ante todo sufrimiento ignorado por nuestra propia conveniencia, por nuestra indiferencia, por la falta de valor para posicionarnos ante las injusticias presentes o por la falta de compromiso ético para recuperar nuestra memoria y mirar a las pasadas.

En un intento de desnudarse de toda teatralidad, el reparto de *Perra*, encabezado por Teresa Ibáñez como la derrotada Hécuba y Andoni Lauzurika como el triunfante Agamenón, desplaza el foco de atención de la venganza a la justicia. La justicia que exige y trata de forzar una mujer. Una mujer, para más señas, anciana, esclava y extranjera a ojos de quienes representan la Ley.

La compañía ORTZAI, creada en Vitoria-Gasteiz en 2005, tiene como vocación continua la búsqueda de un lenguaje común y un compromiso con su actividad y los valores artísticos y humanos impresos en ella.

Ahora nos presentan su último trabajo: *Perra*.

Troya es cualquier momento y cualquier lugar.

Zuzendaritza / Dirección: **Iker Ortíz de Zárate**

Antzezleak / Intérpretes: **Teresa Ibáñez, Iñaki Fernández de Balboa, María Bilbao, Itsaso Alicante, Andoni Lauzurika, Idoia Rebollo, Carlos Larrea, Ana Gómez Alday, Iker Ortíz de Zárate**

Ekoitzpena / Producción: **Ortzai**

Laguntzailea / Colabora: **Hezkuntza eta Kultura Udal Saila / Departamento municipal de Educación y Cultura**

Teatro Principal Antzokia

Abonamendutik kanpo / Fuera de abono

Antzerki abonamendua erostean, % 30 deskontua ikuskizun honetan / Al comprar el abono de teatro, 30% de descuento en este espectáculo

90 m

15/10/6 euro







© Jordi Soler

# The mountain

## Agrupación Señor Serrano

### azaroak 10 noviembre, 19:30

*The Mountain* lanak Everestera egindako lehen espedizioa, haren arrakasta oraindik ere ziurgabetasunez betea dagoena, eta bere *La Guerra de los Mundos* (The War of the Worlds) irratsaioan beldurra zabaltzen ari den Orson Welles bateratzen ditu: badmintoneko jokalariak baseball-ean; fake news-ez betetako webgunea; ikusleak aztertzen ari den dronea; elurra; pantaila mugikorrak; hautsitako irudiak; eta Vladimir Putin, konfiantzaren eta egiaren inguruan poz-pozik hizketan.

Agrupación Señor Serrano antzerki-konpainiak egoitza Bartzelonan du eta giza esperientzia garaikideko alderdi desberdinen inguruko ekoizpen-lan originalak sortzen ditu. Agrupación Señor Serranoren ikuskizunek zuzeneko bideoak, maketak, testua, performancea, soinua eta objektuak nahasten dituzte. Konpainien ekoizpen-lanak estreinatu eta gero nazioartean egiten dute bira.

Bere lana Gasteizen lehen aldiz ikusteko aukera izango dugu

**Solasaldia antzezpena bukatutakoan.**
**Gonbidapenak irailaren 15etik aurrera**

*The Mountain* combina la primera expedición al Everest, cuyo éxito es aún hoy incierto, con Orson Welles sembrando el pánico en su programa de radio *La Guerra de los Mundos;* jugadores de bádminton jugando a baseball; una web de fake news; un dron escrutando al público; mucha nieve; pantallas móviles; imágenes fragmentadas; y Vladimir Putin disertando satisfecho sobre la confianza y la verdad.

La Agrupación Señor Serrano es una compañía de teatro con sede en Barcelona que crea producciones originales sobre aspectos discordantes de la experiencia humana contemporánea. Los espectáculos de la Agrupación Señor Serrano mezclan vídeo en directo, maquetas, texto, performance, sonido y objetos. Las producciones de la compañía se estrenan y giran internacionalmente.

Podremos ver su trabajo por primera vez en Vitoria-Gasteiz.

**Tertulia tras la representación**
**Invitaciones a partir del 15 de setiembre**

Sorkuntza / Creación: **Agrupación Señor Serrano**

Antzerkigintza eta zuzendaritza / Dramaturgia y dirección: **Alex Serrano, Pau Palacios, Ferrán Dordal**

Ahotsa / Voz: **Amelia Larkins**

Musika / Música: **Nico Roig**

Performance: **Anna Pérez Moya, Alex Serrano, Pau Palacios, David Muñiz**

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

70 m

18/12/6 euro


@ Pablo Ramos Escola

# Los farsantes (Estreinaldia Euskadin / Estreno en Euskadi)

## Buxman Producciones y Centro Dramático Nacional

**azaroak 17 noviembre, 19:30**

*Los farsantes* da Pablo Remón dramaturgo, gidoilari eta zuzendariaren lan berria. Aurretik, *El tratamiento, 40 años de paz, Sueños y visiones de Rodrigo Rato* eta *Los mariachis* lanak sortu ditu. Remonek itzulera bikaina izan du antzokietara Marina Salas, Francesco Carril, Nuria Mencía eta Javier Cámararekin.

Zuzendariaren hitzetan, komedia horretan lau aktore bakarrik ateratzen dira, hamarnaka pertsonaien, espazioren eta denboraren inguruan bidaiatzen. Antzerkiaren eta ikus-entzunezko munduaren inguruko satira hau, aldi berean, fikzioan eta handik kanpo ditugun rolen, porrotaren eta arrakastaren inguruko gogoeta ere bada.

Lana nolabait independenteak diren kapituluekin eraikita dago eta antzerkitik baino, eleberritik gertuago dagoen egitura osatzen du. Horren asmoa da *Los farsantes* batez ere antzerki-narrazioa izatea, baina nobela eta zinematografia arloko aspirazioa izatea.

*Los farsantes* es la nueva obra del dramaturgo, guionista y director Pablo Remón, autor de *El tratamiento, 40 años de paz, Sueños y visiones de Rodrigo Rato* y *Los mariachis*. Remón vuelve a los escenarios a lo grande con Marina Salas, Francesco Carril, Nuria Mencía y Javier Cámara.

En palabras de su director, es una comedia donde solo cuatro actores viajan por decenas de personajes, espacios y tiempos. Una sátira sobre el mundo del teatro y del audiovisual, a la vez que una reflexión sobre el éxito, el fracaso y los papeles que encarnamos, en la ficción y fuera de ella.

El conjunto está construido con capítulos que son, en alguna medida, independientes, formando una estructura más próxima a la novela que al teatro. La intención es que *Los farsantes* sea una narración eminentemente teatral, pero de aspiración novelesca y cinematográfica.

Testua eta zuzendaritza / Texto y dirección: **Pablo Remón**

Antzezleak / Intérpretes: **Javier Cámara, Francesco Carril, Nuria Mencía, Marina Salas**

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

150 m (atsedenarekin / con descanso)

18/12/6 euro






©Simon Wachter

# Feste (Espainian estreinaldia / Estreno en España)

## Familie Flöz (Alemania)

**azaroak 18 noviembre, 19:30**

Familie Flöz hamar herrialdetako antzerkiko sortzaileen (aktoreak, musikariak, dantzariak, zuzendariak, maskara-fabrikatzaileak, argien eta jantzien diseinatzaileak, eszenografoak, dramaturgoak eta beste profesional batzuk) nazioarteko taldea da eta egoitza Berlinen du.

Antzerki-lan bakoitza elkarlan-prozesuaren bidez garatzen dute eta iluntasunetik argitasunera iristeko bidea osatzen duten pertsonaiaz eta istorioz betetako kosmosa osatzen dute. Etengabe ehun urte baino gehiago dituzten diziplinak berriro aurkitzeko lanean barneratuta, Familie Flözek parekorik ez duten poesiadun antzerkiko bizipenak ekoiztea lortu du.

*Feste* helduentzako maitagarrien ipuina da, hitzik gabea. Banakako zorionaren bilaketari buruzko istorio tragikomikoa da, baina horren atzean gehiago dago: Paul Kleen-en aingeruek bezalaxe, maskarek aurrerapenaren eromen bortitzaren testigantza eskaintzen dute haien gelditasun isilarekin.

Familie Flöz es un grupo internacional de creadores teatrales -actores, músicos, bailarines, directores, fabricantes de máscaras, diseñadores de luces y de vestuario, escenógrafos, dramaturgos y otros profesionales- provenientes de diez países diferentes con sede en Berlín.

Cada obra se desarrolla en un proceso de trabajo colectivo, dando vida a un cosmos poblado por personajes e historias que se van forjando el camino desde la oscuridad hacia la luz. En un constante redescubrimiento de disciplinas centenarias como la actuación teatral, máscara, danza, payaso, magia, acrobacia e improvisación Familie Flöz logra producir vivencias teatrales de una poesía incomparable.

*Feste* es un cuento de hadas sin palabras para adultos. Una historia tragicómica sobre la búsqueda de la felicidad individual, pero detrás de la cual hay más: como los ángeles de Paul Klee, las máscaras dan testimonio de la furiosa locura del progreso con su silenciosa inmovilidad.

Egileak / Autores: **Andrés Angulo, Björn Leese, Hajo Schüler, Johannes Stubenvoll, Thomas van Ouwerkerk, Michael Vogel**

Zuzendaritza / Dirección: **Michael Vogel**

Antzezleak / Intérpretes: **Andrés Angulo, Johannes Stubenvoll, Thomas van Ouwerkerk**

Maskarak / Máscaras: **Hajo Schüler**

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

90 m

Texturik gabeko ikuskizuna / Espectáculo sin texto

18/12/6 euro



# Finlandia

## Pascal Rambert (Espainia-Frantzia / España-Francia)

**azaroak 26 noviembre, 19:30**

*Finlandia* modu basatian idatzi nuen. Etenik gabe, oso bizkor, nire barrualdetik testua atera nahian, nire *La clausura del amor* edo *Hermanas* kanporatu nituen moduan. Israel Elejalderentzat eta Irene Escolarrentzat egin dut. Izan ere, oso ondo ezagutzen ditut haien antzezteko moduaren eta esaldi batean abiadura-aldaketa egiteko duten gaitasun ultra-azkarraren ezkutuko erritmoak. Haien maiztasun bortitzera lotu eta hitz egitera behartu ditut...

Alabaren zaintza dela eta eztabaidan ari diren aita eta ama dira. Une jakin horretan, gizakiaren alderdi zatarrena bistan dugula esan dezakegu.

*Pascal Rambert.*

Escribí *Finlandia* de manera brutal. Sin pausa, muy deprisa, como para expulsar este texto de mi interior tal y como expulsé de mí *La clausura del amor* o *Hermanas*. Lo he hecho para Israel Elejalde e Irene Escolar, de quienes conozco perfectamente los ritmos subterráneos de su manera de actuar y de su capacidad ultrarrápida de cambio de velocidad en una frase. Me he conectado a su frecuencia violenta y he hecho que hablen...

Son un padre y una madre que discuten la custodia de su hija. Se puede decir que en ese preciso momento asistimos a la parte más fea de la especie humana.

*Pascal Rambert.*

Pascal Rambert (Niza, 1962) egilea, eszenena-zuzendaria, errealizadorea eta koreografoa da. Bere lan osoari Frantziako Akademiak emandako Antzerki Saria jaso zuen 2016an. Théâtre des Bouffes du Nordeko artista elkartua da 2017ko urtarriletik, Estrasburgoko Antzoki Nazionaleko artista elkartua 2014tik, eta Pavón Teatro Kamikazeko artista elkartua 2017ko irailetik.

Pascal Rambert (Niza, 1962) es autor, director de escena, realizador y coreógrafo. En 2016 recibió el Premio de Teatro de la Academia Francesa al conjunto de su obra. Es artista asociado al Théâtre des Bouffes du Nord desde enero de 2017, autor asociado al Teatro Nacional de Estrasburgo desde 2014 y artista asociado a El Pavón Teatro Kamikaze desde septiembre de 2017.

Testua, zuzendaritza eta eszenografia / Texto, dirección y escenografía: **Pascal Rambert**

Antzezleak / Intérpretes: **Irene Escolar e Israel Elejalde**

Ekoizpena / Producción: **Teatro de la Abadía y Kamikaze Producciones**

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

90 m

18/12/6 euro







# The tree

## Carolyn Carlson (Frantzia / Francia)

**azaroak 12 noviembre, 19:30**

Carolyn Carlson mundu mailan dantzako erreferentea da. Jaiotzez iparramerikarra, Roubaixeko Koreografia Zentro Nazionaleko eta Pariseko Atelier-eko zuzendariordea da, Pariseko La Cartoucherie de Vincennes-en.

Lengoaia koreografikoarekin eta oso pertsonala den antzezpenarekin, bere lana erakusteko garaian, nahiago du Carlsonek "ikusizko poesia" hitza "koreografia" baino.

Lau hamarkadatan, 100 lan baino gehiago sortu ditu eta haietako asko mugarri bihurtu dira dantzaren historian. Bere lanagatik Urrezko Lehoia jaso zuen 2006an. Huraxe izan zen Veneziako Bienalak koreografo bati lehen aldiz emandako Urrezko Lehoia.

*The Tree* da konpainiarentzat egindako azken sormen-lana eta 8 dantzarien birtuosismoaren bidez, eta bere ikuspegi onirikoari esker, kolapsatzeko puntuan dagoen naturarekiko maitasunarekin lotutako adierazpen boteretsua eta funtsezkoa eskaintzen du Gaston Bachelard filosofoaren *Fragments of a Poetics of Fire* lanean oinarrituta.

Carolyn Carlson es un referente de la danza a nivel mundial. Norteamericana de nacimiento, es la vicedirectora del Centro Coreográfico Nacional en Roubaix y del Atelier de París en La Cartoucherie de Vincennes.

Con un lenguaje coreográfico y puesta en escena muy personal, Carlson prefiere el término «poesía visual» a «coreografía» para describir su trabajo.

Durante cuatro décadas ha creado más de 100 piezas, muchas de las cuales son hitos en la historia de la danza. En 2006, su trabajo fue recompensado con el primer León de Oro otorgado jamás a un coreógrafo o coreógrafa por la Bienal de Venecia.

*The Tree* es su última creación para la compañía y gracias a su visión onírica y a través del virtuosismo de los ocho bailarines que interpretan la pieza, ofrece una expresión poderosa y vital del amor a la naturaleza al borde del colapso, basada en *Fragments of a Poetics of Fire*, del filósofo Gastón Bachelard.

Koreografía eta eszenografia / Coreografía y escenografía: **Carolyn Carlson**

Koreografiako laguntzailea / Asistente de coreografía: **Colette Malye**

Antzezleak / Intérpretes: **Alexis Ochin, Chinatsu Kosakatani, Juha Marsalo, Céline Maufroid, Riccardo Meneghini, Isida Micani, Yutaka Nakata, Sara Orselli, Sara Simeoni**

Musika / Música: **Aleksi Aubry-Carlson, René Aubry, Maarja Nuut, K. Friedrich Abel**

Teatro Principal Antzokia

Dantza abonamendua / Abono danza

70 m

21/15 euro



# La casa vacía (Erabateko estreinaldia / Estreno absoluto)

## Proyecto Larrua

**azaroak 15 noviembre, 19:30**

2015ean Larrua konpainia sortu zenetik, garrantzi berezia eman diogu mugimenduaren ikerketari, estiloaren bilaketari eta diskurtso bereizgarriari. Lan-lerroak definitu ahal izateko gure helburu nagusiak izan dira honako hauek: mugimenduaren erritmoak, dueto- eta kontaktu-lana, konposizioko egiturak, mugimenduaren dramaturgia eta emozioa eta fisikalitatea bateratzeko modua. Lanei beti gogoeta-garrantzia gehitzen diete, irudiak azaltzen diren unetik ikuslearengan pentsamendu introspektiboa sortu nahian.

Lanak bost interprete biltzen ditu: emakumezko aktore bat eta lau dantzari: Begoña Martín, Ingrid Magriñà, Maddi Ruiz de Loizaga, Ainhoa Usandizaga eta Aritz López. Sormen-taldea aurreko ekoizpenetan Larrua proiektuarekin batera lan egin duen berbera da: Luis Miguel Cobo, Enric Planas, David Alcorta, Xabier Mujika, Pedro Casas, Jordi Vilaseca eta Aritz López

**Solasaldia antzezpena bukatutakoan.**
**Gonbidapenak irailaren 15etik aurrera**

Desde el nacimiento de la compañía Proyecto Larrua en el 2015 hemos hecho gran hincapié en la investigación del movimiento y en la búsqueda de un estilo y un discurso característico. Las cadencias del movimiento, el trabajo de dueto y contacto, las estructuras de composición, la dramaturgia del movimiento y cómo aunar la fisicalidad y la emoción han sido nuestros objetivos más importantes para poder definir la línea de trabajo, añadiendo a las piezas siempre un peso reflexivo, que busca despertar el pensamiento introspectivo en el espectador desde la formulación de imágenes.

Esta pieza cuenta con cinco intérpretes en la escena: una actriz y cuatro bailarinas: Begoña Martín, Ingrid Magriñá, Maddi Ruiz de Loizaga, Ainhoa Usandizaga, Aritz López. El equipo creativo sigue siendo el mismo que viene colaborando con Proyecto Larrua en las pasadas producciones: Luis Miguel Cobo, Enric Planas, David Alcorta, Xabier Mujika, Pedro Casas, Jordi Vilaseca y Aritz López.

**Tertulia tras la representación**
**Invitaciones a partir del 15 de setiembre**

Antzezleak / Intérpretes: **Begoña Martín, Ingrid Magriñá, Maddi Ruiz de Loizaga, Ainhoa Usandizaga, Aritz López**

Koreografia / Coreografía: **Jordi Vilaseca**

Sormen-taldea / Equipo creativo: **Luis Miguel Cobo, Enric Planas, David Alcorta, Xabier Mujika, Pedro Casas, Jordi Vilaseca y Aritz López.**

Koprodukzioa / coproducción:
**Udal Antzerkien Sarea / Red Municipal de Teatro**

Teatro Principal Antzokia
Dantza abonamendua / Abono danza
60 m
18/12 euro



TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA



Viola Berlanda

# Don Juan (Euskadin estreinaldia / Estreno en Euskadi)

## Fondazione Nazionale della Danza / Aterballetto

**azaroak 25 noviembre, 19:30**

1977an sortu zen Compañía de Ballet de los Teatros de Emilia Romagna izenarekin, Vittorio Biagik zuzenduta. 1979an, konpainiak Aterballetto izena hartu zuen. Estilo guztiak lantzeko gai diren dantzari solistek osatzen dute. Bere historian zehar, Aterballettok ospe handia izan du Italian eta atzerrian antzezleen eta zuzendaritzen kalitate bikaina direla eta.

Azken urteotan, Italiako eta nazioarteko koreografo askok egin du konpainiarekin batera lan. Horien artean, honako hauek aipa ditzakegu: Mauro Bigonzetti, Michele Di Stefano, Andonis Foniadakis, William Forsythe, Johan Inger, Jiri Kylian, Cristiana Morganti, Jiri Pokorny, Cristina Rizzo, Hofesh Shechter eta Giuseppe Spota.  Gaur egun, Gigi Cristoforetti da konpainiaren zuzendaria.

Johan Inger-ek sortutako koreografiaren oinarria. Don Giovanni jaunari aurre egiteko desioa da. Giovanni jauna garai bateko mito paradigmatikoa da, eta gaur egun oraindik ere garaikidea dela esan dezakegu. Tirso de Molina-ren, Molière-ren eta Bertold Brecht-en jatorrizko komedia eta Suzanne Lilar-en antzerki-lana dira bere inspirazio-iturrietako batzuk.

Dance & Dance ekoizpen onenari emandako saria 2020an.

Fundada en 1977 como Compañía de Ballet de los Teatros de Emilia Romagna y dirigida por Vittorio Biagi, en 1979 la compañía tomó el nombre de Aterballetto. Formada por bailarines solistas capaces de abordar todos los estilos, Aterballetto a lo largo de su historia ha gozado de un amplio reconocimiento tanto en Italia como en el extranjero, gracias a la gran calidad de sus intérpretes y a sus direcciones.

En el curso de su historia más reciente, muchos coreógrafos italianos e internacionales han colaborado con la compañía, incluidos Mauro Bigonzetti, Michele Di Stefano, Andonis Foniadakis, William Forsythe, Johan Inger, Jiri Kylian, Cristiana Morganti, Jiri Pokorny, Cristina Rizzo, Hofesh Shechter y Giuseppe Spota.  Actualmente es Gigi Cristoforetti quien dirige la compañía.

La coreografía firmada por Johan Inger surge del deseo de confrontar a Don Giovanni, un mito paradigmático antiguo y aún contemporáneo. La comedia original de Tirso de Molina, Molière, Bertold Brecht y la obra de teatro de Suzanne Lilar son solo algunas de las fuentes de inspiración.

Premio mejor producción Dance & Dance 2020.

Koreografia / Coreografía: **Johan Inger**

Musika originala eta konposizioa / Música Original y composición: **Marc Álvarez -Manuel Busto con Orquesta de Extremadura**

Dramagintza / Dramaturgia: **Gregor Acuña-Pohl**

Eszenografia diseinua / Diseño escenografía: **Curt Allen Wilmer**

Teatro Principal Antzokia
Dantza abonamendua / Abono danza
100 m
21/15 euro



# Sex berdinak

## Tanttaka teatroa

**azaroak 19 noviembre, 19:00 / 21:00**

Lan honen helburua da gehienontzat "ezezaguna" den gaira gerturatzea. Garun-paralisia duen mutiko baten bizipenetan eta emozioetan barneratu eta alderdi afektibo-sexualean oinarrituko gara modu aktiboan.

Lokartuta dirudien errealitatea aurkezteko asmoz etorri gara. Esna gaudelako. Eta gurpildun aulkia sexurako eragozpena ez delako. Eta maitatzeko eragozpena ere ez delako. Eta maitatuak izateko?

Aurreiritziak, autoestimua, konplexuak, maitasun-gabezia eta bakardadea aztertuko ditugu.  Gorputz ezberdinez hitz egin eta zorionaren inguruan gogoeta egingo dugu.

Gurpildun aulkiak espazio eszenikoan instalatuta egongo diren "besaulkiak" izango dira. Gainera, oso iradokitzailea den proposamen eszeniko honen funtsezko elementua da, ezagutzen ez dugun "bizitza baten egia" erakusten duelako. Bizitza hori zintzoa, sakona, ausarta eta isilarazitakoa da, eta hori guztia planteamendu dramatiko eta eszeniko deigarria eta ausarta abiapuntutzat hartuta egiten du.

El objetivo de esta obra es acercarnos a un tema que para la mayoría es "desconocido". Nos sumergiremos en las vivencias y emociones de un chico con parálisis cerebral y nos centraremos activamente en el aspecto afectivo-sexual.

Venimos con la intención de presentar una realidad que parece dormida. Porque estamos despiertos. Y porque la silla de ruedas no es un impedimento para el sexo. Y tampoco para amar. ¿Para ser amados?

Analizaremos los prejuicios, la autoestima, los complejos, la falta de amor y la soledad. Hablaremos de cuerpos diferentes y reflexionaremos sobre la felicidad.

Las sillas de ruedas serán las "butacas" instaladas en el espacio escénico, así como un elemento crucial de esta propuesta escénica tan sugerente, por el carácter revelador de la "verdad de una vida" atrevida, honesta, profunda y silenciada que desconocemos, así como por el llamativo y valiente planteamiento dramático y escénico.

Egileak / Autoría: **Kepa Errasti, Telmo Irureta**
Zuzendaritza / Dirección: **Mireia Gabilondo**
Antzezleak / Intérpretes: **Aitziber Garmendia, Telmo Irureta**

Teatro Principal Antzokia

Euskarazko antzerki abonamendua (19:00)
Abono teatro en euskera (19:00)

Leku mugatua / Aforo limitado

70 m

15 euro







# Itsas behera / Marea baja

**(Erabateko estreinaldia / Estreno absoluto)**

## Pez Limbo

**urriak 5 octubre, 19:30 (euskeraz)**
**urriak 6 octubre, 19:30 (castellano)**

Eraispen betean dauden bi pertsonaia, haien tokia kosmosaren eta haien erorketak hartzen dituen koltxoiaren artean dagoela ulertzen duten bi pertsonaia, melankoliaren eta kabaretaren artean, materia ilunaren eta karaokearen artean. Jainkoen eta munstroen artean.

Lan-prozesuan *Itsas behera*ko pertsonaien existentzialismoa erabat islatzen duen hizkera aurkitu dugu, hitz zorrotzak fiskalitatea elokuentearekin uztartuz.

Baina lasai, hain sakona ez den zerbait nahi dutenentzat baditugu beste izenburu posible batzuk ere:

- Komedia zuria atzealde beltzaren gainean
- Ez da ezer gertatzen, baina zerbait gertatuko balitz ere, ez litzateke ezer gertatuko.
- Peter Coyote gonbidatua zegoen, baina ezin izan da etorri.
- Ez dut uste hemengo inori existentzialismoa interesatzen zaionik.

*ITSASBEHERA:*

Etxetik tangan, txankletetan eta lumazko berokiarekin ibiltzearen existentzialismoa

Dos personajes en plena demolición que comprenden que su lugar está entre el cosmos y el colchón que recoge sus caídas, entre la melancolía y el cabaret, entre la materia oscura y el karaoke. Entre dioses y monstruos.

En el proceso de trabajo hemos encontrado un lenguaje que refleja plenamente el existencialismo de los personajes de *Marea baja*, combinando palabra afilada con fisicalidad elocuente.

Pero tranquilidad, para quien busque algo menos profundo tenemos otros títulos posibles:

- Comedia blanca sobre fondo negro.
- No pasa nada, pero si pasara algo no pasaría nada.
- Peter Coyote estaba invitado, pero no ha podido venir.
- No creo que a nadie aquí le interese el existencialismo.

*MAREA BAJA:*

Existencialismo de andar por casa en tanga, chancletas y plumífero.

Produkzioa / Producción: **Eduardo Hernando**
Lantaldea / Equipo de trabajo: **Javier Barandiaran, Unai López de Armentia, Espe López**

Teatro Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia

75 m

15 euro



# Ama (La terrible belleza)

## Marie de Jongh

**urriak 14 octubre, 19:30**

Marie de Jonghen konpainiaren antzerki-proiektu berriak *Ama* du izena. Tamaina handiko ikuskizuna da eta, oraingoan, hamabi urtetik gorako helduei dago zuzenduta. Gainera, zero-maskara, neutrotik harago doan maskara erabiltzen dute, giza zantzurik ez baitu.

Nolanahi ere, konpainiaren bereizgarria den ezaugarriari eutsiko diogu: ez dugu hitzik erabiliko.

*Amak* pertsona ahul eta beldurtu batzuen indarraz dihardu. Elkar zaintzaren edertasuna epikoari eskainitako kantu bat da. *Ama* egunerokotasunetik berreskuratutako emozio indartsuen obra da, prosaikoa eta fantastikoa uztartzen diren lana, magikoa eta oroitzapena, artea eta barrea, absurdua eta tragikoa.

El nuevo proyecto teatral de la compañía Marie de Jongh se llama *Ama*. Se trata de un espectáculo de gran formato que se dirige, esta vez, a público adulto a partir de doce años. Se emplea, además, la máscara-cero, máscara que va más allá de la neutra, ya que carece de cualquier rasgo que la humanice.

Mantendremos, en todo caso, un rasgo que ha caracterizado a la compañía: no utilizamos la palabra.

*Ama* habla de la fortaleza de unas personas frágiles y asustadas. Es un canto a la belleza épica del cuidado mutuo. *Ama* es una obra de emociones fuertes rescatadas de lo cotidiano, donde se entremezcla lo prosaico con lo fantástico, lo mágico con el recuerdo, el arte y la risa, lo absurdo y lo trágico.

Egilea eta zuzendaria / Autoría y dirección: **Jokin Oregi**

Zuzendari laguntzailea / Ayudante de dirección: **Ana Meabe**

Produkzio Exekutiboa / Producción ejecutiva: **Pio Ortiz de Pinedo**

Antzezleak / Intérpretes: **Ana Martínez, Javier Renobales, Anduriña Zurutuza, Jokin Oregi, Maitane Sarralde, Joseba Uribarri, Amets Ibarra**

